

TOURRA: PIRINIOAK

ESPRINTAK



GARI GARAIALDE

Mikel Uzkudun, Ainhua Artolazabal eta Iker Flores, atzo egin zuten aurkezpenean.

ESAITek Tourmaletoko igoera antolatu du, euskal txirrindulariak animatzeko

ESAITek kirolzale guztiak gonbidatu nahi izan ditu aldarrikapenarekin bat egitera

Aitziber Salaberria | DONOSTIA

Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldeak, ESAITek, urteko egitarauari jarraituz, txirrindulari martxa antolatu du Tourmaletara. Euskal Herrian txirrindularitzak duen zaletasuna eta aurtengo Tourrean Euskaltel-Euskadi taldearen parte hartzea direla eta, Pirinio inguruan aldarrikapen festa bat antolatzea erabaki dute.

ESAITek antolatu duen Euskal Selektzioaren aldeko martxan parte hartzeko deia txirrindulari zaleentzat dago batez ere.

Mikel Uzkudun ESAITeko kidearen esanetan, martxaren

xehetasunak honako hauek dira; hau da, bi aukera daude martxa egiteko. Lehenengo aukera txirrindulari prestatuentzat da. Horiek Tourmaletoko igoera osoa egingo dute, 17,5 kilometroko igoera. Martxa Ste. Marie de Campanetik abiatuko da, eta irteera ordua 10:30ean izango da.

Bigarren aukera bizikletan gutxiago ibiltzen diren txirrindulari zaleentzat da. Bigarren aukera horretan parte hartuko duten zaleek La Mongien bat egingo dute behetik abiatzen direnekin. Horrela, 4,5 kilometro igoko dituzte.

ESAITek egindako prentsaurrekoan, Iker Flores lesio bat

IKER FLORES

Euskaltel-Euskadiko txirrindularia

«Euskal txirrindulariei egun gogorrek datozkie, eta zaleen animoak beharko dituzte»

dela medio Turretik erretiratu berri den Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulariak ere euskal zaleak martxan parte hartzera animatu ditu. «Euskal zaleei festan parte hartzeko deia egin nahi nieke. Euskal txirrindulariei egun gogorrek datozkie eta zaleen animoak beharko dituz-

te». Festa ona izateko euskal zaleen beharra azpimarratu du txirrindulari nafarrak.

«Martxa ez dugu lehiaketa moduan antolatu; hau aldarrikapen mailako martxa bat da», adierazi du Uzkudunek. Helburua Tourmaletoko maldetan bilduko den jendetzak aldarrikapen horren berri izatea da eta, horretarako, jende gehiena elkartuta joatea komeni da.

Igandeko martxaren aurretik, larunbat iluntzeko zortziak alderako, euskal ezaugarriak izango dituen «euskal festa» antolatu da. Musikekin batera, euskal jaki nahiz edariez gozatzeko aukera izango da.

EUSKALTEL

Iban Mayo kontratua berritzekotan da

Iban Mayo, denboraldi paregabea daraman Euskaltel-Euskadiko txirrindularia, kontratua berritzekotan da. Txirrindulariari abenduan amaituko zaio kontratua eta badira hura fitxatzeko interesa azaldu duten taldeak. Negozioak geldirik badaude ere, bi aldeak kontratuarekin jarraitzeko asmotan dira. «Eskaintza hor dago, ia ez dugu ezeren inguruan hitz egin, baina berritzeko eskaintza egin didatela da garrantzitsua. Azken ukituen faltan, ni Euskaltel-Euskadin gelditzeko ados nago», adierazi du Mayok.

Josu Bergarak animoak bidali dizkio faxez taldeari

Bizkaiko ahaldun nagusiak, Josu Bergarak, animoak bidali zizkion faxez Euskaltel-Euskadi taldeari. Txema del Olmo txirrindularia erretiratu ondoren, taldeari bere elkartasuna adierazi nahi izan dio. Bergararen elkartasun mezuari, Juan Jose Ibarretxe lehendakariarena gehitu behar zaio, telegrama bat bidali baitio txirrindulariari.

Bestalde, Frantziako Tourreko zuzendari nagusia gustura agertu da Euskalel-Euskadi taldeak Txema del Olmo txirrindularia erretiratzeko hartu duen erabakiarekin.

FITXAKETAK

Litekeena da Rabobankek Jan Kirsipuu fitxatzea

Jan Kirsipuu estoniarra, Frantziako Tourreko seigarren etapako irabazleak, Ag2R taldea utzi nahi duela adierazi du. Hori dela eta, baliteke txirrindulari estoniarra Rabobank talde holandarrarekin fitxatea. Kirsipuuk Espainiako nahiz Italiako taldeen eskaintzak ere jaso dituela azaldu du.

Frantziako Tourra 2001 on-line

- irabazlearen soslaia
- sailkapenak
- erreakzioak

- ✓ Euskal txirrindularien jarraipena
- ✓ Taldeak
- ✓ Etapen xehetasunak
- ✓ Lehiaketa

... eta gainera:

Uztailaren 7tik 29ra

www.Egunkaria.com/tourra